

MENDIALDEA MANKOMUNITATEKO ARTZAINEN ARTILE BILKETA
2021eko IRAILEAN (AZKEN AUKERA)

Oraindik eskualdean artilea era egokian kudeatzeko beharra dagoela ikusita, Mendialdea Mankomunitateak irailean **azken bilketa kanpaina** martxan jarriko du.

Artilea Mendialdea Mankomunitatearen **LEITZAKO GARBIGUNEAN** jasoko da eta baimendutako kudeatzaile bati (Ecofert) emango zaio, konposta egin dezan. Artzainek ordaindu beharrekoa, zerbitzuaren kostu bera izango da: alegia, tratamendu kostua eta garraio kostua, bakoitzak jarritako artile kiloen kopuruaren proportzioan.

2021eko irailean artilea jasotzeko argibideak ondorengoak dira:

- Artilea Leitzako garbigunean jasoko da, ondorengo egun eta orduetan:

TOKIA	EGUNA	ORDUTEGIA
	Irailak 28, asteartea	9:00 - 13:00
Leitza		15:00 – 17:30
	Irailak 30, osteguna	15:30-19:00

- Artzainek **artilea zakuetan** eraman beharko dute eta **ez obretako saka handietan**.
- Artzainak berak artilea pisatuta eramaten badu garbigunera, pisua adierazten duen baskulako ticketa ekarri beharko du. Aldiz, artilearen pisua adierazten duen ticketa ekartzen ez bada, artzainari Mankomunitateak pisatuko dio artilea garbigunean. Horretarako zakuetan eraman behar da eta ondoren artzainak deskargatuko du edukiontzira.

Mankomunitateak beraz, bitartekari lana besterik ez du egingo, izan ere, artilea Hirj Hondakin Solidoa ez denez, ez du besterako eskumenik.